



2020 SARBIDE-PROBAK - IZENA EMANDAKO IKASLEENTZAKO JARRAIBIDEAK

- COVID-19k eragindako pandemiaren egungo egoera dela eta, zentroko langileen argibide guztiak jarraitu beharko dira.
- Jarraibide eta/edo arau horiek betetzen ez dituen pertsona orok, zentroak eskatuta, instalazioak utzi beharko ditu, eta, beraz, Sarbide-Probak egiteko aukera galduko du.
- Pertsona bakoitzak honako hauek eraman beharko ditu:
 - Identifikazio-dokumentua
 - Baikotzak bere maskara
 - Azterketa egiteko behar den materiala. Ezin izango da inolako materialik partekatu.
 - Programatu ezin diren kalkulagailu zientifikoak erabili ahal izango dira. Ezin izango da tresna elektronikoen kalkulagailua erabili, baldin eta kalkulagailu zientifiko programaezin baten funtzionalitateak gainditzen badituzte.
- Azterketa-zentrora sartzean, probak egitera doazen pertsonak identifikatuko dira, eta horietan izena emanda dauden pertsonak bakarrik sartu ahal izango dira, tutorearen edo laguntzailearen laguntza behar duten egoera berezietan izan ezik.
- Pilaketak saihesteko helburuarekin, azterketaren hasieraren ordu ofiziala 16:00ak izan arren, 15:15etik aurrera sartu ahal izango dira ikasleak ikasgeletara. Ikasgelak bete ahala, horietan azterketak hasiko dira.